Biziberritzen

paper-industriaren aztarnak eguneratuz, Santa Klara eremuaren berrantolaketa Tolosan



prozesua



Diagnosian zehar aipatutako faktoreen arabera, egungo egoerari hainbat aldaketa egingo zaizkio proposamena osatzeko. Alde batetik, espazio publikoaren arazoei emango zaie irtenbidea osotasunean, eremuaren funtzionamendua egokia izan dadin. Bestalde, eraikinekin elkarrizketa osatuko duten piezak osatzea da helburua, orain duten harreman ezari erantzuna emateko



Eremua aztertu ondoren, konbentuari itsatsi zaizkion eraikinak eta aldapari jarraiki dihoan eraikin lerroa eraistea erabaki da, ordenazioz kanpoko daudenak ere bai. Era honetan, espazio publikoa eratzeko aukera berriak sortzen dira, dauden eraikinei arnasa emateaz gain. Ekialdeko eustorma berdeguneari ere zati bat kentzen zaio plazari espazioa emateko asmoz.



Orube honen zailtasun handietako bat atzeko errepidearen eta plazaren arteko kota aldaketa da, baita hirigintza elementuen ezjarraitasuna ere. Eraikinen arteko distantzia areagotzeko baliatuko da aukera, gaur egun plazara oso itxiak baitaude. Kota aldaketei eta hirigintzaren hutsuneei erantzuna ematea izango da helburu nagusietako bat, eremua irisgarria izan dadin.



Bolumenak sortzerako orduan hainbat kontu eduki dira kontuan. Alde batetik plazarekiko orientazioa, plaza oso itzaltsua baita gaur egun. Bestalde, ardatz berean konbentuaren eta bolumen berrien artean, espazio publikoari lotura eman zaio batera funtziona dezaten. Hala ere, errepidearen eta plazaren artean kota aldaketa bat ematen da oraindik, espazioaren jarraitasuna lortzeko bidean, espazioari jarraitasuna emateko.



Bolumenen formak eremuaren orografia jaitsierari egokitu zaizkio, beste eraikinen altuera mantenduz espazioaren kalitatea ez baitilizateke guztiz egokia oraindik. Honela, orientazioari eta eguzkiaren sarrerari laguntzen zaio plazara egiten duen bidean. Bolumenek espazio publikoaren beharrei erantzungo diete, behar den lekuetan ireki eta moldatuz eta ondoko eraikinei erantzunez



Hasieratik aipatu bezala garrantzi berezia eman zaio espazio publikoaren lotra egoki eta osotasunari. Gaur egun oso etenda aurkitzen denez gero, ez du funtzionatzeko biderik, arriskutsua izateaz gain hainbat puntutan. Gainera plaza gogor iragazkaitzaren ordez espazio bigun eta iragazkorragoak planteatzen dira, erabiltzaileak nahi bezala erabiltzeko.

proposamena









inguruarekin harremana





ikuspegi axonometrikoa



Ikaslea Nora Zeberio Echeberria

Zuzendaria Javier Puldain Huarte